

## **GOIZUETAKO UDALA**

### **Udal retroeskabadora mistoaren erabilpenagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala. Behin Betiko Onarpena**

Goizuetako Udalak, 2008ko otsailaren 25ean ospatutako Udalbilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udal retroeskabadora mistoaren erabilpenagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Espedientea jendaurrera atera zen, 2008ko martxoaren 24ko, 38 zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki oholean argitaratu baitzen, eta hogeita hamar eguneko epean ez da inolako erreklamazio, kexa eta oharririk aurkeztu; ondorioz, Goizuetako Udalbatzak, 2008ko apirilaren 29ko bilkuran aipatutako ordenantzari behin betiko onarpena eman zion.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 235 artikulok agintzen duena jarraituz, behin betikoz onartutako ordenantzaren testua osoa honakoa da.

Goizuetan, 2008ko apirilaren 30ean. Alkatea, Miguel Jose Lekuona Salaberria

### **UDAL RETROESKABADORA MISTOAREN ERABILPENAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

#### **OINARRIA**

1.Artikulua: Toki -Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hontako prezio publikoa.

#### **ZERGAPEKO EGINTZA**

2.1Artikulua: Pertsona fisiko edo juridikoek egiten duten udal jabetzapekoan den retroeskabadora mistoaren erabilera izango da zergapeko egintza.

2.2.Artikulua: Erabilera egin ahal izango da, udalaren berezko zerbitzuentzako ez baldin bada behar retroeskabadora mistoa

3.Artikulua: Udalak parte hartzen edo beste udal edo ta irabazi asmorik gabeko giza Elkarteek antolatzen dituzten kultura eta kirol jardueretako egin daiteken retroeskabadora mistoaren erabilera, ez da prezio publiko hontara lotua egongo.

## **SUBJEKTU PASIBOA**

4.Artikulua: 2.1. artikuluan aipatzen den retroeskabadora mistoaren erabilera egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira ordenantza hontako prezio publikoa ordaintzera behartuak daudenak.

## **ZERGAPEKO OINARRIA**

5.Artikulua: Retroeskabadora mistoaren erabilpen denbora izango da.

6.Artikulua: Erabilpen denbora egunka zenbatuko da (Gehienez 8 ordu erabili ahal izango da egunean). Zenbaketa hau retroeskabadora mistoa udal aretoetatik ateratzen den egunetik bueltatzen den egun arte egingo da, eta egun zatiak, egun osoak bezala kontsideratuko dira.

## **TARIFA ETA KUOTAK**

7.1.Artikulua: Aplikatuko diren tarifak ordenantza honen eranskinean ageri direnak izango dira

7.2.Artikulua: Retroeskabadora mistoaren trasladoa udal langelak udal tresneriarekin egingo balu kuota ondorengoa izango da: Retroeskabadora mistoaren erabilpenagatik dagokiona, gehi trasladoa egiteko erabili den tresneria, langilea eta erabilitako orduak.

## **KUDEAKETA ARAUAK**

8.Artikulua: Retroeskabadora mistoaren erabilpenean interesatu denak udalean idatziz eskatu beharko du. Idatzi honetan zertarako erabili behar duen eta zenbat denbora zehaztu beharko da.

9.Artikulua: Udal Zerbitzu teknikoek hala ulertzen badute, berme bat eskatu ahal izango du udalak, utzitako retroeskabadora mistoaren gainean sortu daitezken kalteengatik erantzutearren.

10.Artikulua: Retroeskabadora erabiltzen ari den bitartean edozein ezbehar edo istripu gertatuko balitz, erantzukizuna beti erabiltzailearena izango da eta inoiz ez udalarena.

11.Artikulua: Retroeskabadora mistoan sortu daitezken hauste eta kalteen konponketa eta behar duen erregaia erabiltzailearen kargura izango da. Retroeskabadora mistoa jasotzeko ardura duen udal langileak, ibilgailuaren gainean sortutako kalteen agiria jasoko du, erabiltzaileari kopia bat emango dio eta bestea udalean entregatuko du. Udalak dagokion konponketa egingo du eta konponketaren faktura gastua erabiltzailearen kontura izango da.

12. Artikulua: Udalak retroeskabadora mistoa erabiltzeko ematen duen baimena diskrezionala da eta ezingo da erreklamatu ezezko erantzuna.

13.Artikulua: Udalak interesatuaren esku retroeskabadora jartzen duenean, erregai depositua betearekin egingo du. Erabiltzaileak ibilgailua bueltatzen duenean berriz erregai depositua beteko du, eta suertatzen diren litroen diferentzia izango da, erabiltzaileak erregai kontzeptuan ordaindu beharko duena.

### **AZKEN XEDAPENA**

Lehenbizikoa: Ordenantza honetan-aurreikusi ez den orotan, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1 995 Foro Legeari xedatutakoa aplikatuko da, eta honekin bat datozen gainerako arauak, indarra badute

Biganrena: Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, testua osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.

### **ERANSKINA**

#### **Makinaria**

Retroeskabadora mistoa	<b>122€/eguneko</b> (gehienez 8 ordu egunean)
------------------------	-----------------------------------------------

Prezio publiko hau aldatzen ez den bitartean, urtero eguneratuko da behar den IPKren arabera, dagokion urteko urtarrilaren 1etik aurrera.